


MERKATARITZA INDIZEA AZALERA HANDIETAN ETA ELIKADURA KATE HANDIETAN (AHEK). 2017ko iraila

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura kate handietako salmentak %3,8 gehitu ziren 2017ko irailean

2017ko lehen bederatzi hiletan %2,7ko hazkundea.

Eustaten arabera, lan-egutegiko baldintza homogeneousetan, 2017ko irailean %3,8ko urte arteko gehikuntza Euskal AEko azalera handietako eta elikadura kate handietako salmentek, prezio finkoetan. Abuztuaren aldean, salmentak %0,6 jaitsi, urtaro eraginik gabe.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)
Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Prezio finkoak



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Elikagaien salmentek %2,9ko gehikuntza, gainerako salgaien %5,6koa.

Gehikuntzak hiru lurraldeetan: Bizkaian %4,0; Araban %4,0; Gipuzkoan %3,5.

2017ko lehen bederatzi hiletan, Euskal AEko azalera handietako eta elikadura kate handietako salmentak %2,7 gehitu, aurreko ekitaldiko aldi beraren aldean, lan-egutegiko termino homogeneousetan, prezio finkoetan. Bederatzi hil horietan, elikagaien salmentetan %2,7; gainerakoenetan %2,6.

Bizkaian, urteko lehen bederatzi hiletako salmentak %2,8 gehitu prezio finkoetan eta aurreko urteko aldi beraren aldean; Gipuzkoan %2,7; Araban %2,4.

Azalera handietako eta elikadura kate handietako langile kopurua %2,7 gehitu zen aurreko urteko hil beraren aldean.

1. taula. Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hile arteko aldakuntza-tasa. Iraila. 2017

	PREZIO FINKOAK		
	m / m-12	m / m-1	A (m) / A (m-12)
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	3,8	-0,6	2,7
Araba/Álava	4,0	-1,0	2,4
Bizkaia	4,0	-1,1	2,8
Gipuzkoa	3,5	0,6	2,7
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Elikagaiak	2,9	-0,5	2,7
Beste produktuak	5,6	-0,6	2,6
ENPLEGU INDIZEA			
Euskal AE	2,7	0,2	3,8

m / m-12 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

m / m-1 Hile arteko aldakuntza. Datu desestazonalizatuak

A(m)/A(m-12) Urtarriletik oraingo hilerako arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, aurreko urteko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan (AHEK)

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62